

MERKATARITZA-INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2024 MAIATZA


## Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,6 jaitsi dira 2024ko maiatzean

**Aurreko hilaren aldean, salmentak % 0,2 gehitu dira**

Eustaten datuen arabera, eta prezio konstanteetan, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 0,6 gutxitu dira 2024ko maiatzean, aurreko urteko hil beraren aldean.

2024ko apirilaren aldean, prezio finkoetako salmentak % 0,2 gehitu ziren.

### Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

*Elikaduraren* sektorean, prezio konstanteetako salmentak % 0,5 gehitu dira hil artean. *Gainerako produktuen* sektorean, berriz, salmentek % 0,4 egin dute behera.

Urte artean, 2024ko maiatza eta 2023ko maiatza alderatuta, prezio finkoetako salmentak % 1,3 murritzuta dira *Elikaduraren* sektorean, eta *Gainerako produktuetan*, berriz, % 0,7 igo dira.

## Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Maiatza 2024

|                                                       | Prezio finkoak |            |                  |
|-------------------------------------------------------|----------------|------------|------------------|
|                                                       | m / m-12       | m / m-1    | A (m) / A (m-12) |
| <b>INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera</b> |                |            |                  |
| <b>Euskal AE</b>                                      | <b>-0,6</b>    | <b>0,2</b> | <b>0,0</b>       |
| Araba/Álava                                           | -0,3           | -0,3       | 0,7              |
| Bizkaia                                               | -1,7           | -0,2       | -0,7             |
| Gipuzkoa                                              | 1,1            | 1,1        | 0,9              |
| <b>INDIZE OROKORRA sektorearen arabera</b>            |                |            |                  |
| Janariak                                              | -1,3           | 0,5        | 0,4              |
| Gainerako produktuak                                  | 0,7            | -0,4       | -0,8             |
| <b>ENPLEGU-INDIZEA</b>                                |                |            |                  |
| Euskal AE                                             | -0,5           | -0,8       | 1,1              |

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2024ko Ekainaren 26a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

2024ko maiatzean azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,7 jaitsi ziren Bizkaian urte artean, eta % 0,3 Araban. Gipuzkoan, aldiz, prezio finkoetako salmentak % 1,1 gehitu dira.

Aurreko hilaren aldean, hau da, 2024ko apirilaren aldean, salmentek behera egin dute Bizkaian eta Araban, % 0,2 eta % 0,3, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, prezio finkoetako salmenten balioa aurreko hilekoa baino % 1,1 handiagoa izan da.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako enpleguak % 0,5 gutxitu dira, 2023ko maiatzaren aldean. Hil arteko datuei dagokienez, indizea % 0,8 jaitsi da.

### INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiaren eraginak zuzenduta dituzten serieetatik abiatuta kalkulatu dira, eta hilabete artekoak urtaroen eragina kendutakoetatik.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea **% 97,3ko** estaldurarekin kalkulatu da.

#### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62